2.° URTEA

IBAIZABAL

58.ª GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Otsailla-ren 8.ª | Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat. | 1903-ko Zezeilla-ren 8.ª

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.° derecha.

URIRIK URI

(«*Quinper*-eko obispo Dubillart jaunak esondetu dauz 31 arima-zaiñ Combes-ez aloguerak kendu deutseezanak, jarraitu daioen bretonez predikaziñoari frantzezez eztakien erri guztietan.» GAZETA DEL NORTE-k, Urtarrilla, 18, 1903.)

Aurtemingo gueian gueratu nintzan irakurle maitea, *euskerea* zelan, dabillen, obeto esateko, *zelan darabillen*, zeuri adierazoteko ustean Bizkaiko uririk nagosi, laguntsu ta magal zabalenean. Uri orretan dakusgu danok ibai bat IBAIZABAL izena dabena; baita albistari bat izen berbera dabena. Ibaia muturik doia ichaz zabal zabalera; albistaria barriz, berbaz beterik edozeiñen aurrera. Bilbon zer barri dan jakiteko ba, oba da artez joatia Ibaizabal albistariagana, ibaiagana baiño; zegaitik au negarrez doian ichazoaren barrura lotzaturik, *euskereagaz Bilbon jazoten dana* iñok jakin be eztaian.

Esaidazu ba zuk, arren, Ibaizabal albistaria, zelan darabillen gaur egunean *euskerea* zeure jaioterrian.... ¿Mututu al zara?

Ni, Barritzua naiatzu, ta neure antzekozalea be banaiatzu; baiño zuk, Bilboko semea leguez, ezteutzazu erantzun gura nire itauneari, eta neuk esan bearko dot neuk dakustana, urrunchutik eta mendi aldetik izan arren be. Asi gaitean ba.

Artagan baiño be goragotik dakustaz sei elizate edo *parrokia*, Bilbon altzoan jarririk. Emendik, belarri zuur zuurrak ditut baiña, ezin dot entzun nai neuken bestean bertako berbaroa baizen besterik. ¿Urreratuko etenaz zerchubait? Bai beintzat.

Bidez bide jatzitakoan Bilbora, *euskera billa*, noian bertatik San Anton-eko elizatera. Orra ta ona bertan beguiratu; oni ta besteari aditu, eta... *iru edo lau abade euskaldunak*; eliztar edo feligresak, asko ta asko barriz euskaldunak. ¿Elizkizunik euskeraz? *Baperez*. ¿Zegaitik?....

Noian San Juan-go elizara, ta beguiratu bardin, aditu zintzo zintzo, ta... *abade bat* edo beste, euskera dakienak.—¿Santiagon? Erdi bardin—¿San Nikolas-en? Guichi gora-bera. bardin samar.—¿San Bizenten? Emen bere euskaldun asko eztago abaden artean.—¿San Frantzisko derichon eliza barrian? Bat baiño gueiago dagoz euskera dakien abadeak.—Eta aitaturiko elizate danetan ¿eliztar askochu etedira euskaldunak? Guztiz asko.—Onessek (eliztarrak) ¿euskera ala erdera etedakie obeto? Beguiak arpeguian ta belarriak aldean dituzanak beingo baten dakutsu au. Erderarik arroena ta galantena eguiten dabela uste dabeen euskaldunen artean noizik noizera: *mascales*, *plastaso* ta abar, entzuteak ezkaitu miraritu bear ¿eta zolan eskatuko dogu ba erdera zeatza eta pichiz ornidua languille, aloguereko, ta otseiñ, oguituko ta..... onelangoen artean? Elizetan ¿aiñ ikasbide edo berbeikuntza guichi izan oi dira euskeraz? Guztiz guichi. Beguiratu nun eta zeinbat.

Santiago elizan, udagoienetik udabarrira bitartean, euskeraz, goizian goizetik, domeketan, eguin oi da; Albiako Jesuiten elizan, illean beiñ edo eguin oi da euskeraz, Mariaren alabentzat derichat, elizkizun bat. Eta onenbestegaz... ¡kitu euskerea ta euskaldun guizagaisoak!

Bilboko euskaldun *erderagaizto* baiño eztakienakaz ¿zegaitik ezta noredo-nor baiño errukituten? Euren bizibidea zelan edo alan aterateko ustean Bilboratu direan euskaldunak, erderarik eztakienak, edo jakinda bere, charto, erdera-mordoillo baiño eztakienak ¿ez aldira Jesukristo-ren sinistean bizi nai leukeenak? ¿Euren arimak guichiago balio etedabe? ¿Ez ala bai? Aintzat artzekoak badira ba euroen arimak ¿arima-zaiñak zegaitik abegui zerbait obeagoaz beguiratuten ezteutse? ¿Eteda au eurak *ezin dabelako*, *nai eztabelako*, edo *otu echakelako* eurakaitik zerbait eguitea?

Naieza-gaitik, ez; zegaitik arimazain eguiazkoak nai daben bere ardurapean dagozanen dan-danen zorion betikoa. ¿Eteda ezin dabelako euskeraz eta euskaldunai — *¡euren errian!*—ezer irakatsi? Ezetzean nago; zegaitik, norezeko eguin-bearrez ganera, asko ta asko eguin oi dira Bilbon arimazaiñen bidez; eta au ezin izango litzake, astirik ezpalebe. Barriz, abade-lagun edo *coadjutore* bagako arimazaiñ edo *parrokorik* eztago Bilbon, eurak, abade nagosiak, dana ezin badabe be.

Onenbestegaz, gaurko ekitaldia amaitutera noia; eukiarren ondiño zer-esanik asko, nazana nazalako.

BARRITZU.

(jarraituko dau.)

AMA BIRGIÑA-RI

(Tota pulchra euskeraz)

Guzti guztia ederra zera
zoragarrizko Maria
pekatuaren kutsurik gabe
sortu ziñan chit garbia.

Zu zera eguiaz, aitor bear da
Jerusalengo gloria
Zu zerade ¡bai! ta izango zera
Isrraelgo pozgarria.

Zu gure jende ta erriaren
zerade onragarria.

Zu zera beti pekatarien
bitarteko chit aundia
¡O! ¡O Maria! ¡O! ¡O María!
Birgiña chit zentzutia.

Gugatik ¡arren! erregu zazu
Ama guztiz maitatia
Gure onerako Jesusekin Zuk
eguizu aldezun guztia.

† JOSÉ MARIA ELEIZEGUI.

EUSKALDUN ERDALZALEA

Ustez-uste gabeko erdalduna

—¿Ori ere badogu Premiñ?
—¿Zer esan nai didazu?
—¿Zu ere erdaldun?
—¿Ni? Ez izan ta ez izango.
—Izan bai. Izango, eztakit.
—Guizona; nik erdera apurcho bat ulertu (1) nezake; baiño esan, ezercho ere ez.
—Oker zaude; zuk, ulertu ez, baiña esan bai.
—Orise ere ateraldia da; ulertu ez, eta ¿esan bai?
—Bai, eta da ateraldi eguiazkoa.
—Bai; oraingo *metro*, ta *litro*, ta *kilimetro*, *makilitro*, *makilimelomitro*-kontuak bezela izango da zuk diozuna ¡ulertzen ez, ta esan!...
—Bai guizona; zuk esaten dezu ulertzen eztezuna. Eta bestela goazen ikustera. ¿Ulertzen dezu zer dan *kara*?
—*Kara*..... *kara*..... *karakoles*..... *karakrus*.... *karamelo*..... *karabiñanbrusio*.... *ikara*.... *jikara*.... *pikara*.... *maskara*....; nik eztakit zer dan *kara*.
—Ba jakin ezazu dala erderazko itza, arpeguia esan nai duana.
—Izan dedilla ¿eta zer?
—¿Ulertzen dezu zer dan *ajo*?
—*Ajo*.... *ajo*.... *bajo*.... *fajo*.... *majo*... *ojo*.... *tajo*....; nik eztakit zer dan *ajo*
—Ba, da erderazko itz bat, barachuria esan nai duana.
—Izan dedilla ¿eta zer?
—Nola zuk esaten dituzu *kara* ta *ajo*, erderazko itzak, ulertu gabe, orra nun zuk esaten dezun ulertzen eztezuna, eta eguiazkoa dan nere ateraldia.
—¿Noiz aditu dizkidatzu neri itz oiek?
—Azkeneko aldiz atzo arratzaldean, Aitzpeko aldapan gora zure mandoarekin ziñezela.
—¿Nik esan nuan *kara*?
—Baita *ajo* ere.
—Beraz, biak esan nituan.
—Bai; bata bestearen jarraituan.
—Adiskidea; zu zura izan baziña, ziria izango ziñan.
—¿Arrolaka zoaz albora, guizon moskorra bezela? Atoz eta goazen asi degun bidean. ¿Esan zinduzen ala ez, itz aiek?
—Bai guizona, bai; eztet ukatzen, eta prochu on deizula. Baiña nik esan nituan itzak orduan, mandoari esan nizkion.
—¿Eta mandoa erdalduna da?
—Mirandatik etorria da, eta nolanai ere, beiñipein, euskalduna ezta.
—Nik ikusi zaitut ba zu iñoiz mandoari euskeraz itz eguiten, «guissassoa» esanaz.
—Bai, baiña atzoko arratzalde orretan ostikada bat eman zidan, eta orduan atera zizkidan nituanak eta eznituanak.
—¿Etziñuzanak ere bai?
—Aditzen da; erderakada oiek.
—¿Ostikada erderazkoa al zan?
—Erderazkoa bazan ta ezpazan, zuk ematen dizkidatzun ostikadak, mandoarenak baiño miñ gueiago ematen didate; nunbait andiagoak dira.
—Beraz, neri ere, guchienaz erderaz itz eguin bearko didazu.
—Ez; euskera garbian esango dizut, asto aundiak ostikada aundia eman oi duala.
—Arraietan ezta chikia oraiñ bertan zuk ematen didazuna. Astoaren

(1) Ulertu da *entenditu*.

ostikada, danik eta aundiena izanta ere, beti da astoarena, baiña mandoarena beti da aundiagoa.

—Emen ¿zein oteguera ba mando, eta zeiñ asto?

—Ara; *soo* esanta guelditzen dana, astoa; eta *arre* esanta abiatzen dana, mandoa.

—¿Eta biak eguiten dituana?

—Mandakoa. Baiña Premiñ; gueron buruak asto eta mandotu baiño len, biurtu gaitezan atzera, eta esan zadazu. ¿Ezagutzen dezu oraiñ zeori ere erdaldun zerala?

—¿Zergatik?... ¿*Kara* ta *ajo* beiñ esan ditudalako?

—¿Beiñ bakarrik? ¿Eta jai-gabetan?

—Beguira; jai-egunetan, egunez, ni, beti naiz ni; baiña gabera ezkero, ni ez nai ni.

—¡Orisse bai dala erdera guziak baiño okerragoa, eta ulertzen gaitzagoa!

—Adizazu ba, eta laster ulertuko dezu, eta erraz.

—Mintza zaite, eskutapen edo *misterio* ori azaltzeko.

—Ara ba: jai-illuntzian sartzen naiz ardoteguian, nere bi anken gaiñean, eta ateratzen naiz lau ankarekiñ. Orduan ni, enaiz ni, enaiz Premiñ.

—¿Zeiñ zera ba?

—Murruza eguiten badet, izango naiz chekorra; miau eguiten badet, katua; ata erderakadaren bat botatzen badet, maketua; eta ala ta orrela...

—¿Eta euskeraz itz eguiten badezu?

—Eztago orduan euskeraz itz eguiterik, zergatik Premiñ bakarrik da euskalduna, eta eztago Premiñik astelen goizera arte.

—Baiña Premiñek, Premiñ dalarik ere badaki erderakadak botatzen.

—¿Nik dakidala ez.

—Beraz ez-jakiñean.

—Ustez-ustegabekoren batean balitzake.

—¿Ez altzera oroitzen nola bota oi dituzun, *puño* ta *peineta* eta beste orrelakoak?

—¡Orrelakoak!.... ¡Orrelakoak!.... Bai, zerbait ere oien antzekoak, esan eztitudanik, eztet esango.

—Baiña ¿euskeraz?

—Nik zuri ¿badakizu zer izen jarriko nizuken?... *sakatrapus*.

—Orra or beste erderakada bat orain ere.

—Barkatu; ustez-uste gabe atera zait.

—Barruan eztagoanik ezta ateratzen. Ustez-uste gabe esaten dituzu *kara* ta *ajo*, *puño* ta *peineta*, edo oien antzekoak, eta *sakatrapus*: danak erderazkoak. ¿Badakizu zer izen bear zendukian?

—¿Zer?

—Ustez-uste gabeko Erdalduna.

P. M.

ODAI BI

Aizeak iñundik bere putzik eguiten ezeutsela, odai bi gueldi gueldi ta gora-goraka ibilli ta guero zeruko atartera bateratsu edo erdi batera eldu zirean: bata zuria, uin edo olatuen bitza langossea; bestea baltza ta ezaiña. Eurak ara eldu aurrean, aingueru matrailla-biribil batzuk jolasean barre-gozotan egozan erara, aukeran, eztitan, zoriona ganezka ebela. Odai biak eurakanantz igoten ikusirik «nora etedatoz oneek» esanda, eurai beguira egozan aoa erdizabalik ebela.

Lenengo eldu zana odai zuria izan zan.

—¿Sartu leike? esan eban atartean.

—Nor az bada ta zetara ator?

—Ni Lurbiratik nator. Eliza baten jaioa naz. Atzo illuntzean altara-aurrean Jaungoikoa aguirian egoala, zidarrezko katillu baten chingarrak abade bati eskiñi jakazanean, onek *intzentzu* garau batzuk chingartzara bota ta sortu nenduan ni. Guero batu jatazan altarako arkai edo kandela zurien ke ederra, ta kantarien aotit urteniko *Tantum ergo*-ren berbak bultz eguinda gora ta gora etorri naz, Eguillearen aurrean aguertu nai neukeala.

—Aurrera, eder ori, erantzun eutsen aingueruak; eta intzentzuz eta batez bere arrenez edo *erregu*-z eguiñiko ke ederra len baiño chairoago ta iasekoago zeruko ate-barrutik aurrera ta aurrera Jaunagana aguertu zan.

Bigarren odaia eldu zanean lotsarren itandu eban:

—¿Sartu leike?

—¿Nor az eu ta zetara ator, zikin ori?

—Lurbiratik nator. Luzarochu aidean ibilli naz igon ezinda; baiña nekez da lorrez baiño ezpada bere eldu naz beintzat; eta atea osoz oso zabalduko ezpaiat bere, zirrikitu batetik sartu nai neuke Jaunaren aurrean auzpaztuteko.

—¿Zelango zirrikitu ta mirrikitu! Olango gauzarik echagok emen. Atzera etorri azan bideetatik joan bear izango dok, zikin orrek.

—Ez ni. Esaiozue ugazabari ta zeuek nai ezarren sartuko naz.

—¿Nor az bada eu?

—Ola edo *fabrica* baten sortu naz. Ikatza zan nire Aita, arri-ikatza, lurraren erraietan gau utsez jaio ta azia. IBAIZABAL derichon ibai estu baten ertzeko ola edo *fabrica* batera tatarrez eroan eben; da orainche illebeteren bat izerdi-larri baltzetan bustiriko languille batek bultz eguinda, laba andi sutsu batera bota eben. Arik lasterchura bartzun luze luze batek chingarpilloa goikoz beeratu ebanean, *fu* eguinda sortu nintzan; da ola-ondoan bizi direanetatik batzuk (guichi dira oneek) eguneroko lanak Jaunari eskeinten dautzazalako, ta ni bartzunaz sortarazo nenduan guizona onetarikosse eskinlaria dalako, beste ke-adar asko ezereztu arren, ni gueldi gueldi zorioneko ate onetarasse eldu naz.

Au entzueran aingueru papu gorri bat errukiturik eta gona-magala ez keetutearren batu batu eguinda, «guizagaiso ori, ator barrura» eza naz, Jaunaren aurrera eroan eban.

—Erdu guizagaiso ori neure ondora, esan eutsan odai baltzari Jaunak. Bat au ta beste ori, odai zuri-baltzok biok zaree zerurako onak: i, zuri, arrenaren semea az; i, baltz, lanagandik sortua. Biok alkar bear dozue ta alkarregaz emen bizi izango zaree. Lan bako arrenak ke zurieguiak eguin oi dauz, arren bako lanak ke baltzeguiak; eta ez batzuk ez besteak ezin igon izaten dabe lurreko odaietatik gora. Landun arrena ta arrendun lana: ketu zaiteze ta erdu neure atseguiñean bizi izatera.

(*Chirristadak* derichon liburutik artua.)

TOLOSARKERIAK

Kirten baten ateraldia

Emakume chaldan bat
Zerkausi kalean,
chanponik gabe zerbait
erosi naiean,
inguratu zitzaion
Amezketar bati
esanaz:—¿Gazta char au
zenbatean neri
ipiniko dirazu
libra bat artzera...?
—Lauterdian.
—Iruban
¿konforme altzera?
ta eztu gaiñera leguez
ainbeste balio,
guezalaren tantoa
nun naitik dario;
ara, beste onessek
dauka zar ichura,
merke bada eraman
zaidazu pissura.
Ala baserritarra
jiratu zanean
gazta pisatu eta
saltzeko ustean
nun ark ¡zas! lapurtu
dion bat ustela,
gabiraiak oillanda
lezaken bezela;
baiñan ikusirik
Alar mendikoak,
beguiratu zorrotza
duben arranoak,
koajez beterikan
bertan zuben andrea
¡bi milla kapusai!
bertan puskatu nai.
Ontan bildu zaiote
kirten aguazilla,
dantzaturik eskuan
zigordi makilla,
eta bere galdera
eguin ondorean,
ala dio *kirtenek*
esan gogorrean:
—¿Zuk ostu diozula
beraz oni gazta?
—Ez jauna, guezurra da.
—Isso, isso... *basta!*
aguertu zaizkidazu
alik laisterrena
mantala, kolkoa ta
saskien barrena,
ta orduan esango det
kulparik gabea
zu otezeran edo
gastaren jabea.
Eguin erazi eta
esan dan moduan
nola etzion arek
ezer topatu an,
jardun da lapurrari
arrazoi ematen
esanaz etzubela
kulparik ezeren;
baiño Amezketarra
gogoraturikan
otezuan botia
gazta saskitikan,
beguiratzen asirik,
nun alki tartian
ikusi duben eta
bere pozaldian:
—¡Ara! dio jabeak
zeladoreari,
¡ara nun dagon gazta
lapurtuba neri!
¡aussen bera da, jauna,
aussen, bai, arduna!
—Etzaidazula atera
gueiegui jarduna,
zergatikan arrazoi
pulamentuzko bat
eztirazun ematen
choroenak ainbat;
nerea bakarra da
bidezkoa, zeren...
¡pertika bera baiñon
zuzenago naizen!
—Baiño... ¿zer esaten du
jauna, gaur bedorrek?
¿kulparik eztubela
pissti gose orrek?
¿nola liteke bada,
nolatan ordia,
emen zegoan gazta
or arkitutzia?
¿nork eraman du maitik
beste alderdira?
—¿Ori? dio *kirtenek*
gaztari beguira,
ori onek ez baiño...
—¿Zeiñek, bada, tira?
—¡*Arrak eraman dute alkien azpira!*

EMETERIO ARRESE.

EZTA EGUIA

Leku onetan elizetako berbaldi, bederatziurren da bere antzeko erreguakaitik, meza-ondoko abemariakaitik esan doguna ezta guztien gogokoa izan. Gogoez ori erakutsi dabe batzuk erderazko albistarietan, beste batzuk lagun arteko autu edo conbertzaziñoetan. Lenengokoai erantzun deutse norbaitek urten dabeen lekuan; erderaz, eurak maite dabeen

da onetariko (ta bestetariko) arazoetan erabilten dabeen izkuntzan erantzun deutsee, ta ederto; euskeraz be bai azkenengo gueian, euskerazko albistari bakar onetan.

Lagun artean esaten danari, ondo gogartu ezkero, uste izan leike eztagoala zetan erantzun; baiña miñ eguin deusku abadeen kontra jarri gareala norbaitzuk eta nunbait esan dabeela ta esan dala jakiteak. Bada eguia izan arren eztaukala esan orrek oiñik edo fundamenturik adimen sendodun guizonentzat, au da, noberen buruaz edo noberen adimeneko beguiakaz gauzak zelan direan ikusten oituta dagozanentzat, orraitiño, adimen makaleko guïzakumo ta batez bere emakumeen artean (1) esan orrek zabaldu daiko guk merezi eztogun entzutea: abadeen kontrakoak gareala. Ta beraz, ondo izango dala derichogu emen zerbait esatea, issillka-missilka entzute ori gure lepoan ezarri nai dabeenai.

Lenengo esan bear dogu, Jainkoaren zortzigarren aguindua ez austeko esan bear litzakela gueienez be, abade batzuen kontra jarri gareala, esan barik «abadeen kontra»; bada guztiakaitik ezkendun guk ezer esan, uri batzuetako abade batzukaitik baiño. «Abadeen kontra».., onetara esan ezkero, naiñok adituten dau abade guztiak sartu dabeezala edo abadeak, abade direanez, gaukeezala euren kontra; ta ori ezta eguia.

Baiña alan esanda be, erratuta legokez; guk ezteutsegu ezer esan abade direalako, euren buruen kontra eztogu eguiñ; guk eztogu besterik eguin, euskaldunen artean erderea erabiltea chartzat artzea baiño, eta ori, egüerdiko arguia baiño arguiago ikusten dan gauzea dalako. Eleuskeo bein be semeak aitare ezer esau bear, baiña batzuetan gauza bearrekoa eguiten da; aita itsututa bide okerretik doiala ikusi ezkero, semeak, maite badau, esan bear deutso zein bide daroian, deadarka berbaz entzuten ezpadau.

Ezkagoz ez abadeen kontra gu. ¿Zelan egon. IBAIZABAL euskerearen alde lan eguiteko sortua bada, ta guk ondo badakigu euskereak elizguizonen artean euki dabezela ta daukazala bere adiskide ta laguntzaillerik ugarienak eta onenak, eta onez ganera, gueure buruak euskaldun zintzotzat daukaguzanez (2), *Jaungoikoa ta Leguezarra* diñoan azalkaiagueure biotzetan josirik badaroagu?

Ez bazerrietakoak, ezpada urietako abade azkok ontzat artu dabe guk esan guonduena; ta gueukan peku edo errezelo bakarra, au da, gogorchoegui egon guiñeala, Guipuzkoako abade onbide andikoa ta euskeraz izkiralari edo eskritore aurrenengoetarikoa danak, aienatu edo kendu euskun esanaz ondo eguin guenduela gogor eguiteaz, bigunkeriai iñok ezteutsala jaramonik eguiten da.

Jakin beie ba, gu abadeen kontra jarri gareala siaistu dabeenak, eztala ori alan, esan dogunagaitik eta abade onak eta jakintsuak be alanche uste dabeelako; esan dabeenai eztiñotzagu ezer, bada euren aoan achaki bat baiño ezta izan auza akuluari ostikadea jaurtiteko.

BLOA.

(1) Au alan dala ezagutuleko ezta besterik bear ausse baiño; emakume batek esan eutsan gure adiskide bati «*ola, conque* IBAIZABAL be abadien kontra jarri da?» —¿Irakurri dozu zeuk? erantzun eutsan.—Ez, nouk ez, baiña alan esan deustee.

(2) Arrotasun ausse daukagu, beste batzuk erderaz berba eguiten da erdaldunen antza irabazten eukiten daboen legusz.

GURE ESKUTITZAK

Errenteritik

Lengo igandean aurkeztatu ziran emengo bilbokian iru lan euskeraz azkeneko gueian esaten zan bezela. Baziran batzuek esaten zutenak (ta ez aurreneko aldiz) euskeraz eskribitutako gauzak chorokeriak esaten zirala eta iñor eztala izango biltokian. Arrazoi aundirik etzutela jaun jakintsu oiek azaldu da garbi aski, nai zuenak ikusi biltokia betia zan. Bakar bakarrik zeuden utsak esseri leku batsuek toki bereiztuan, an egotia gueiago kostatzen dalako eta garbi garbi esateko, ara joaten dan jendeak uste etzuelako eguiñ zan beziñ festa ederra eguingo zala. Chalo aundipean aurkeztatu ziran lengo astean izendatu ziran iru lanchuak, eta jendea aiñ kontentu irtentzan, non eskatzen zuan berriz ere eguin ditezela maiz samar orrelako festak. Orain artean euskerazko festakiñ guertatu dana franko da adierazitzeko jendeak gure izkuntzari maitetasun aundia diotela.

Iru aldiz zortzi egunen barru aurkeztatu zan *Pudente* ere, eta sarrerako chartela naiz pezeta bat kosta merkiena, iru egunetan jendia erruz joan zan. Berriz igandean izan zan euskerazko festa eta berriz ere bete zan biltokia. ¿Zer esan nai du orrek? ¿ez dagoala gure iskuntzaren aldo iñor? Ez gueunke nai besterik ezpada ill batean lau igandean erreskan eguitea lau festa erderaz sarrerako chartelan balioa euskerasko festan berdiñ jarrita, eta guero esango guenioke zein ote gueran gallen. Jendeak beñepeñ algara gozo franko eguin zuen igandean *Tomash Inasio Donostian, Iskina Mutrikun* eta *¡Gabon jaunak!* ikusten eta lana eguiñ zuten gustiak entzun zituzten makiñat bat chalo, danak ondo mereziak.

Eskatu zuten guero azaldu zitezela lan oien eguilleak, bada jendeak uste zuan Iraola jauna ia jaiero bezela emen izango zala, bañan... noizpait (ez berialakuan) azaldu zan... bulkaka barrendik bialdu zutelako gure erritar Erramun Illarramendi, zeñak entzun zituan chalo asko. Iraola jaunari bialtzen dizkagu errenklara abetan berari tokatzen zaizkanak. Eta bukatzeko: nola euskerasko festa abek mesede aundia, oso aundia, eguiñ bai dioten orfeoiari; nola orfeoiko gazteak zaletuak bai dauden euskeraz lana eguiteko, eta nola jende asko baitan errian euskerazko festak diranean bakarrik joaten diranak biltokira, espero degu gure adiskide maite Olaran, orfeoiko guiariak, eguingo duela euskalduna dan partetik alduen guzia emendik aurrera oraiñ artian baño maishiago festak euskeraz eguiteko, bada bere mende dauden mutillak pozez eguingo dute lana beren iskuntza ederrian eta jendea ere joango da seguru aski biltokia betetzera. Ez bada aztu eta seguitu aurrera mutillak.

EUSKALDUN BATEK

Zarauztik

Artozkari jauna: Aita praille agurgarri batek bialdu dit eskutitz bat zeiñetan esaten didan aurrera jarraitzeko IBAIZABAL chikiak artu duben lanean, berez chikia bada ere, izatez dala aundia eguiazko euskaldunentzat, zergatik bere gaia dan euskara bizkortzea, eta erderak gure anaien artean, eta gure oitura eta legue zarretan zenbait kalte eguin digun esatea. Gaiñera esaten dit negargarrizko gauza dala jakiñik erdararekiñ batera dijoazela gure errietara oitura char guziak, alaz gustiaz ere langa gogorrik inork jartzen eztiola.

¿Nondik uste dezute, irakurleak, etorri zaidala orrela mintzatzen dau eskutitz au, menturaz Bizkaitik, Arabatik, Naparroatik, Guipuzkoatik, ala gure anai euskaldun prantzesetatik? Ez batetik ez bestetik; erdalerrian eskribitua dago berak dion bezela: «erbeste onetan euskeraz eguintako paper gozatsu orrekin igarotzen ditut alaitasun ederrak.»

Emen asko dira ezagutzen dutenak eta sarritan ala adierazten dute itzez, erdararekin sartu zaizkigula entzuten diran birau naskagarriak eta ikusten diran zenbait galguiro izugarriak; ezagutzen eta aitortzen dute, eta ala ere beren izketa dana da erderaz, au da, aipatu ditugun birau ta galguiroen ekartzailleari egoak ematen diozkate. Ori eguiten dutenak eztute ajola aundirik artzen biranakatik ez eta galguiroakatik; bestela beren ekarzailleari gogor eguingo liokete bide guzietatik, batez ere mintzaeran, berak baiñon beeragokoai *ejemplo* edo erakusmon ona emanaz.

Lengo egun batean bildurik iru lagun eguin omenzuten beren itzaldia Donostiako beren apaiz lagunen gaiñean, bada berak ere apaizak dira. Neri ere guertatu zait oietako birekiñ itzeguitea, eta galde eguin didate:—¿Aldakizu zenbait apaizek meza-ondoko sermariak euskaraz esaten dituen Donostiko San Bizente elizan? Esan bearrik eztago galdera ori eguin zidaten apaiz jaunak dirala eguiaz ta benetan euskaldunak beren eguite denetan. Erantzun nioten:—Danak eztituzte esango, baiño nere iritzian lautatik iruk.

—Asmakorra zera, adiskidia; erdi erditik asmatu dezu.

—Bai, zergatik banekien eleiza orretan euskalzale asko dala.

—Bai, euskalzale asko da baiño euskaraz sermariak esaten duanik bat bakarra, ta oni *baserritarra* deizen omendiote orrela errezatzen duelako.

—¿Ezaldaude bada lengo Bikarioa eta Don Auspizio Otaegui jauna eleiza orretan? Euskaldun onak eta sonatuak dirala aditu izan det.

—Bai, ala esaten da baiño gaur edo biar Donostian guertatzen bazera, eta aien meza ikusten badezu, adituko dezu erderaz sermariak esaten nola bat ala bestea.

—Orduan oiek ere baserritarrak dirala esango otedioten beldur izango dira.

Bai, gure ama euskara, orrela baztarrera utzi zaituzte zure seme askok; eta kontu esan eztutela maite, laister beteko diturte albistarien orriak esanaz gu euskaldunak guera eta ala nai degu izan; ori ere esango dute erdaraz, beren beste izketa dana edo gueiena bezela.

Ara emen erdalerritk aita praille batek bialdu didan bersoa:

Euskera laztan maite
Zabiltz gugaz beti;
Euskera ill eskero
Eztegu nai bizi.

JENARO ELIZONDO.

GURE ARBOLA SANTUARI

Arbola zaarra, ona emen nun dan
Euskalerria;
Zu zara gure nai sutsuaren
Azalgarria;
Gure gogoa zugan daukagu
Beti jarria;
Ori daukazu gaur egunean
Zeure orria;

—

Aulduta zagoz, urritu dira
Zure indarrak,
Zu igartzea dauke gogoan
Etsai gogorrak,
Azkoreagaz moztu deutsuez
Zeure adarrak,
Bai ta aguirian jarri nai izan
Zeure sustarrak;

—

Baiña ezin izan euskal seme bat
Baidan artean,
Daukazulako zure sustarra
Gure odolean;
Jainko-aguinduz zu ta gu bizi
Gara batean,
Baita biziko, etsaien damuz,
Aurrerantzean,

—

Orregaitik zu eratzi naian
Dabiltzala ba;
Azkora zorrotz, achur astunak
Dakarrezala;

¡Ez bildur izan! eguingo dabe
Alperrik lana,
Euskal biotzetan sustarra beti
Gueratuko da.

E. BUSTINTZA.

IZKIRIMIRIAK

Juez batek itandu eutsan bati:

—¿Ezagututen dozu Agueda R.?

—Ez jauna.

—¿Zelan da ori? ¿Zeure emaztea ez alda?

—Bai jauna.

—Orduan ¿zelan diñozu eztozula ezagututen?

—¿Juezak uste dau, nik ezagutu izan baneu, beraz ezkonduko nintzala?

Artzekodun batek zortzailleari.

—¿Noz ordeztuko deustazu zor deustazuna?

—Datorren illean.

—Iru bidar esan deustazu orisse.

—Or aguiri da nik beti eguia esaten deutsudala.

Senarra, emaztea ta amaguiñarrabak urten dabe echetik eta zinta-arri batetik bestera doiazala zaldi-burdi batek artu dau azpian atsoa ta eguin deutsoz zauri batzuk.

Orduan suiña badoa burtzaiñaren ondora ta lauerleko bat emonaz badiñotso issil issilchorik:

—Eutso, ta beste baten illten badok bost oguerleko emongo deuadaz.

Astokillok biguira edo *tertulia* baten jakin zuen emakume batek amar milla *duro* edo oguerleko zituela *dote* edo eskonsaritzak; eta non bizi zan esan ziotenean, joan zan beraren aitarengana ta egun onak eman ta nola zegoan galdetu, ta nor zan esan ta eseri zanean, emakumaren aitak esan zion ia zertera etorri zan, egun onak kalean ere eman zitezkela-ta.

—Jauna: nik ere zuk eguin zenduena eguin nai nuke ta....

—¿Ta zer?

—Ta senar izateko emaztea bear da ta....

—Eguia, emazte izateko senarra ta aita izateko....

—Ta emaztetzako zure alaba....

—Baiñan ez edozeiñentzako. ¿Baaldakik nere alabak nolako eskontsaria duen?

—Amar milla oguerleko.

—¿Ik zer dek bada?

—Nik zuri bost milla emango dizkizut.

—¿Neri? ¿Nondik? ¿Uste al dek eztakidala nor aizen?

—Nik artuko dizkit zure alaben amarrak; zuretzat izango dira bost, neretzat beste bost. ¿Gaizki esana alda?

. . . . . .

Astokillok goruzkoa baiño ariñago eguin omen zuen beruzkoa.

Ume bat egoan garraizika ta negarrez uskeri bategaitik.

Bere amak atze-aldea zapladaka iru bidar berotuarren, umeak negar da negar ekin eutsan zati baten. Isildu zan noiz edo bein, eta amak esan eutsan orduan:

—Beiñ edo beiñ issildu azanean....

—Enaz issildu, erantzun eutsan umeak, gueiago eguiteko arnasa artuten nago-ta.

—¡Aita, aita!

—¿Zer da?

—Patatak erein dodaz solo baztarrean ¿da badakizu zek urten daben?

—¡Zek urtengo joan! Patatak.

—Ez, charri batzuk urten dabe ta jan eguin dabez.

Ostatu izki baten katillukada saldea atara eutsen bati, garbantzu garau bat bakarrik barruan ebala.

Au ikusirik gure bidaztia soiñekoak erazten asi zan.

—¿Zer eguitera zoaz? echekoandreak esan eutsanean.

—Andrea, erantzun eban, iguiri edo ugar eguin nai neuke, ondoratuta dagoan garaua atara al banei.

Erri baten, ill aguiñean egoan guizon bati Untziñoa emoten ziarduan abadeak, eta argui eguiten egoan sakristauak, (ardanteguitik aurreratxuago etorria), kandela tantaka batzuk bota eutsazan gaissoari oiñ baten ganera.

—¿Zer arraio darabizue or guizonak? itandu oban gaissoak.

Abadeak ezeban ikusi zer eguin eban sakristauak eta erantzun eutsan gaissoari;

—¿Zer erabilliko dogu ba, anaia maitea? Oleaziño santua.

—Bada mesedez otzitu eizue apur bat, beroegui dakazue ta.

GURE SUSKRIZIÑOK-BATZAILLA

BIZKAIAN

Bermeo, José Antonio Zabala; *Lekeitio* Julián Zarreta; *Lemona*, Prudencio Arrieta; *Plencia*, Bernardino Sierra; *Mungia*, Eustasio Bilbao; *Markina*, Felipe Eizaguirre-*Durango*, Roberto Soloaga; *Ondarroan*, Aqui; Ilno Echevarría.

GUIPUZKOAN

Donostia, Zacarias Leizaolaren alarguna, 17, Loyola, liburuteguia; *Azpeitia*, Salvador Bengoechea; *Bergara*, Francisco Cyanguren *Tolosa*, Baleriano Mokoroa; *Irún*, Guillermo Iguaran; *Deva*, Esteban Egaña; *Zumaya*, Pedro Ignacio Aizpurua; *Zarauz*, Jenaro Elizondo; *Oñate*, Fermin Bengoa; *Mongragon*, Antonio Kerejeta; *Eibar*, Julián Odriozola; *Renteria*, Gabriel Echebeste; *Pasaian* Juan Valverde; *Arechabaletan*, Francisco Galdós.

LA EDITORIAL VIZCAINA derechos reservados
Gran Vía, 26 eta Lerdo, 15.

IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat
Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería), 19

JAUN JOSE ASTUY-RENEAN

Redakziñoa: Bilbon, Tiboli, letra B, 2.° derecha

Iragarriak

1.° orrialdean . . . . . peseta 1 lerroa
3.° » . . . . . » 0,20 »
4.° » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira
Aurretik pagau bear dira, bai suskriziñoak eta bai iragarriak